

1

DATUAK ETA ZENBAKIAK



Haurren eta gazteen aurkako sexu-indarkeria kirolean

— Zer da sexu-indarkeria

Sexu-indarkeria termino zabala da, sexu-jazarpena eta sexu-abusua barne hartzen dituena. Honela defini daiteke: pertsona batek biktimak libreki baimenik eman gabe edo baimena emateko edo ukatzeko gai ez den norbaiten aurka egindako sexu-egintza edo hori egiteko saioa (Basile et al., 2014). Sexu-abusua, eskuarki, honela definitzen da: guztiz ulertzen ez duen, baimen informatua emateko gai ez den edo garapenaren aldetik prest ez dagoen eta baimenik eman ezin duen haur bati eragiten dion edozein sexu-jarduera. Sexu-jazarpena, berriz, hau da: hitzekoa, hitzik gabekoa nahiz fisikoa den portaera sexualizatua, gizabanako edo talde batenganakoa, nahita zein nahigabe egina, botere- eta konfiantza-abusuan oinarrituta dagoena eta biktimak edo lekuko batek nahi gabekotzat edo behartutzat jotzen duena (Nazioarteko Olinpiar Batzordea, 2007). Ukipenik gabeko sexu-egintzak (adibidez, argazki pornografikoetarako paratzea edo Interneten prestatzea) kontzeptu horretan sartzen dira.

— Zein maiztasunarekin gertatzen da?

Ikerketak iradokitzen du Europako bost haur edo gaztetatik bat dela sexu-indarkeria motaren baten biktima (Europako Kontseilua, 2007). Kirolean, gai horri buruzko ikerketa berri samarra da eta herrialde gutxi batzuetatik soilik dator. Kiroleko sexu-jazarpena ikertzen duten azterketek % 3 eta % 52 bitarteko prebalentzia-zenbatespenak ematen dituzte; sexu-abusuari dagokionez, aldiz, % 0,2 eta % 9,7 bitarteko prebalentzia zenbatespen dute (Parent eta Fortier, 2017). Erabilitako metodologiaren eta definizioen desberdintasunak izan daitezke zenbatespenen aldakuntza handiaren azalpena. Oraindik ez dago argi aldakuntza handi horiek ikertutako kultura diferenteetan sexu-abusua edo -indarkeria pairatzeko arriskuari buruzko benetako desberdintasunen ala desberdintasun kontzeptualen ondoriozkoak diren. Nolanahi ere, azterketek adinkideek egindako abusua eta ukipenik gabeko kasuak barne hartzen badituzte sexu-indarkeriaren definizioan, gertagarria da prebalentzia-tasak nabarmen igotzea.

— Nortzuk dira sexu-indarkeriaren biktimak kirolean?

Edozein atleta izan daiteke sexu-indarkeriaren xede, adina, kirol-gaitasuna, generoa, nazionalitatea, arraza edo etnia, gizarte-klasea, hezkuntza-maila eta sexu-orientazioa edozein direla ere eta desgaitasuna izan zein ez. Sarritan sexu-indarkeria "gizona delitugile eta emakumea biktima" balira bezala irudikatzen bada ere, duela gutxi azterketetan, biktimen prebalentziari dagokionez, ez da aurkitu batere diferentziarik mutilen eta nesken artean kirolean edo, aurkituz gero, oso eskasa da (Parent eta Fortier, 2017; Vertommen et al, 2016). Azterketek erakusten dutenez, nazioartean lehiatzen diren atleta gazteek maila baxuagoetan lehiatzen diren atletek baino esperientzia gehiago jakinarazten dituzte kiroleko sexu-indarkeriaren eremuan. Gainera, azpitalde zaurgarriek, adibidez, LGBT atletek, gutxiengo etniko batekoek edo desgaitasuna daukatenean, kirolean sexu-indarkeriaren biktimak izateko arrisku handiagoa dute.

— Nortzuk dira kiroleko sexu-indarkeriaren egileak?

Bai gizonak, bai emakumeak, bai gazteak izaten dira sexu-indarkeriaren egileak. Entrenatzaileak eta jarraigoko beste kide batzuk maiz izaten dira sexu-abusuaren egileak, baina sexu-jazarpeneren egileak entrenatzaileak izatea baino gertagarriagoa da atleta adinkideak izatea (Mountjoy *et al.*, 2016). Atleta adinkideek egindako sexu-jazarpeneren egile bat baino gehiago egon ohi dira. Hala ere, entrenatzaileak haurren edo gazteen aurkako sexu-indarkeriako kiroleko gertakarietan nahasita daudenean, gertakariak larriagoak izateko joera dute (Vertommen *et al.*, 2017).

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpeneren eta -abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



EUROPEAN UNION

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe



— Zeintzuk dira kiroleko sexu-indarkeriarako arrisku-faktoreak?

Kirolek egitura eta kultura bitxiak dituzte bereizgarri: horien arabera, indarkeria eta lesio fisikoak eragiten dituzten ausazko jazoerekiko tolerantzia handia dago (denak jokoaren gorabeheratzat jotzen baitira) eta parekotasunik gabeko botere-harremanak sortzen dira entrenatzaileen eta atleten artean, baita lidergo autoritarioa ere. Gainera, genero-proporzioan gizonak dira nagusi, sarritan ukipen fisikoa behar izaten da eta zenbait sariketa-egitura daude. Horrek guztiak haurren eta atleta gazteen aurkako sexu-indarkeriarako mesedegarria den giroa sortzen laguntzen du.

Hona hemen kirolean arriskua ekar dezaketen testuinguruetakoz batzuk:

- ▶ aldagelak
- ▶ dutxak
- ▶ auto partekatutak
- ▶ gaueko egonaldiak entrenamendu-esparruetan edo lehiaketetan.

Dena den, oso jende gutxik lotzen dituzte kirolak sexu-indarkeriarekin. Besteak beste, antolamendu-faktore hauek dakarte sexu-indarkeria eta -jazarpenerako arriskua areagotzea: sexu-portaera desegokia toleratzen den kirol-kulturak; haren zantzuak kontuan hartzen ez dituzten edo isilean onartzen dituzten lekukoek; diskriminazioaren eta genero-desparekotasunaren onspenak (Mountjoy *et al.*, 2016).

Zaila da kirol-eremuko sexu-indarkeriako esperientziak ezagutaraztea. Agian, tabua beste leku batzuetan baino are handiagoa da, atletek ustez indartsuak izan behar dutelako eta zaurgarritasuna ahulezia dela pentsatzen delako. Etorkizun oparoko atleta gazteen handinahi mugagabeak zaugarri egiten ditu, eta delitugileak ezarritako sekretua gordearaziko die, haurrak sekretua ezagutaraztean egongo diren ondorio txarren (adibidez, kirola utzi beharrenean) beldur direlako.

— Badago arrisku handiagoa kirol batzuetan beste batzuetan baino?

Askotan pentsatzen da ukipen-kirolean edo kirol indibidualetan beste kirol batzuetan baino arrisku handiagoa dagoela. Hala ere, orain arte, ez dago hori egia delako frogaz zientifikorik. Arropa-, estaldura-, ukipen-kantitateak eta kirol-mota ez dira kiroleko sexu-jazarpenera edo -abusurako arrisku-faktoreak (Fasting K. *et al.*, 2004).

— Zein da eragina?

Kirol-eremutik kanpo eginiko azterketetan oinarrituta, badakigu haurtzaroan edo nerabeztarokoan sexu-indarkeria pairatzeak eragin ikaragarria izan dezakeela epe laburreko eta epe luzeko osasun fisiko, psikologiko eta sozialean. Gaixotasunak eta lesioak, errendimendu-galera, elikadura-nahasmenduak, trauma osteko estresaren nahasmendua, nor bere buruari kalte egitea, autoestimua baxua, portaeraren arazoak, ikasteko zailtasunak, kanporatzearen nahasmenduak, kontrolaren eta jokabidearen nahasmendu inpulsiibo eta kaltegarriak, atxikimenduaren arazoak, antsietatea, depresioa eta nor bere buruaz beste egiteko arrisku handiagoa izan daitezke sexu-indarkeriaren ondorioak. Ez dago arrazoirik uste izateko hori kirolaren testuinguruan jasateko kirol-eremutik kanpoko sexu-indarkeriak baino ondore arinagoak ekar ditzakeenik.

Gainera, sexu-indarkeriak antolamendu-eragina dauka. Hain zuzen ere, hauek dira antolamenduari dagozkion ondorio kaltegarri batzuk: ospea hondatzea, atletek kirola uztea eta babesgabea galtzea.

— Funtsezko erreferentziak

Basile K. *et al.*, "Sexual violence surveillance: uniform definitions and recommended data elements (2.0)", National Center for Injury Prevention and Control, Atlanta, 2014.

Europako Kontseilua, *Convenio del Consejo de Europa para la protección de los niños contra la explotación y el abuso sexual*, 2007.

Nazioarteko Olinpiar Batzordea "Consensus Statement on Sexual Harassment and Abuse in Sport", Lausana: IOC, 2007 (definizioak NOBen 2016ko akordioan eguneratu dira).

Mountjoy M. *et al.*, The IOC Consensus Statement: Harassment and abuse (non-accidental violence) in sport, *British Journal of Sports Medicine* 50, 2016, 1019-1029. or: <http://doi.org/10.1136/bjsports-2016-096121>.

Parent S., Disclosure of sexual abuse in sport organizations: a case study, *Journal of Child Sexual Abuse* 20(3), 2011; <http://doi.org/10.1080/10538712.2011.573459>.

Parent S. & Fortier K., Prevalence of interpersonal violence against athletes in the sport context. *Current Opinion in Psychology* 16(16), 2017, 165-169. or: <http://doi.org/10.1016/j.copsyc.2017.05.012>.

Vertommen T. *et al.*, Profiling perpetrators of interpersonal violence against children in sport based on a victim survey, *Child Abuse & Neglect* 63, 2017, 172-182. or: <http://doi.org/10.1016/j.chiabu.2016.11.029>.

Vertommen T. *et al.*, Interpersonal violence against children in sport in the Netherlands and Belgium, *Child Abuse and Neglect* 51, 2016, 223-236. or: <http://doi.org/10.1016/j.chiabu.2015.10.006>.

Fasting K., Brackenridge C. H. and Sundgot-Borgen J., Prevalence of sexual harassment among Norwegian female elite athletes in relation to sport type, *International Review for the Sociology of Sport*, 39. bol., 2004, 373-386. or.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpenera eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe



2

LEGE- ETA ARAU- ESPARRUAK



Zein legeriak, hitzarmenek, arau-esparruk, jarraibidek eta jardunbide egokiei buruzko orientabideak laguntzen digute haurren eta gazteen aurkako sexu-indarkeria saihesten eta horri erantzuten?

— Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena (1989)

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak 54 artikulua dauka. Haurren bizitzaren alderdi guztiak hartzen dituzte barne eta toki guztietako haurrek eta gazteek dauzkaten eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak zehazten ditu.

Europako herrialde guztiak sinatu dute eta Haurren Eskubideei buruzko Batzordeari (CRC) jakinarazi behar diote nola ezartzen duten. Haur eta gazte orok dauka eskubideak, haren etnia, generoa, erlijioa, hizkuntza, gaitasunak eta beste edozein egoera edozein direla ere. Hitzarmena denetara ikusi behar da: eskubide guztiak lotuta daude eta denek daukate garrantzi berbera. Erlaxatzeko eta jolasteko eskubidea (31. artikulua) eta adierazpen-askatasunerako eskubidea (13. artikulua) indarkeriatik babestuta egoteko eskubidea (19. artikulua) eta hezkuntzarako eskubidea (28. artikulua) bezain garrantzitsuak dira.

— Zuzenbide zibila eta zigor-zuzenbidea

Zuzenbide zibila estatuko legeen multzoa da, gai pribatuak arautzen dituena. Zigor-zuzenbidea arau eta estatutuen multzoa da, gobernu batek osasun eta ongizate publikoei mehatxu eta kalte egiten dielako debekatzen duen portaera definitzen duena. Halaber, legea haustearen ondoriozko zigorrak ezartzen ditu. Herrialde batzuetan, "preskripzio" deritzon kontzeptua dago, alegia, sexu-indarkeriaren biktima izan den gizabanakoak kexa bat aurkezteko duen epea. Informazioa nahi izanez gero, ikusi zure herrialdearen testuinguruari buruzko laukia.

— Safe Sport International: Printzipioen Adierazpena (2014)

Bruneleko Adierazpenak atleta guztiak, gazteak barne, kirolean indarkeria-mota guztietatik babestuta daudela bermatu behar duten printzipioak aurkezten ditu.

— Europako Kontseiluaren Lanzaroteko Hitzarmena (2007)

Haurrak Sexu Ustiapenetik eta Sexu Abusutik Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak, «Lanzaroteko Hitzarmena» izenez ere ezagutzen denak, haurren eta gazteen aurkako mota guztietako sexu-delituak kriminalizatzeko eskatzen du. Adierazten du Europako eta hortik haraindiko estatuak lege zehatzak ezarri behar dituztela, baita neurriak hartu ere, sexu-indarkeria saihesteko, biktima diren haurrak babesteko eta delitugileak auzipetzeko. Lanzaroteko Batzordea da alderdiek Lanzaroteko Hitzarmena benetan betetzen ote duten kontrolatzeko ezarritako erakundea. Lanzaroteko Hitzarmena berretsi duten estatuak buruzko informazio eguneratua ikusteko, sartu hemen:

www.coe.int/en/web/children/convention

— Nazioarteko Olinpiar Batzordearen adierazpen adostua: jazarpena eta abusua (istripuzkoa ez den indarkeria) kirolean (2016)

Kiroleko sexu-jazarpen eta -abusuari buruzko aurreko akordioan (2007) oinarrituta dago eta haurren eta gazteen babesa bereziki aipatzen du. 2016an, NOBek nazioarteko federazioei eta olinpiar batzorde nazionalai emandako orientazioa sendotu zuen.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



Implemented
by the Council of Europe



— Kirolean Haurrak Babesteko Nazioarteko Neurriak (2014)

2001ean, NSPCCko Haurrak Kirolean Babesteko Unitateak, Erresuma Batuan, haurrak kirolean babesteko jarraibide batzuk eman zituen, bermatzeko gobernuak finantzatzutako kirol-erakundeek babes-neurri egokiak ezartzen dituztela.

Ondorioz, Erresuma Batuko Unicefek erakunde-elkarte bati definiarazi dizkio babes-neurrien osagai eta oinarri nagusiak, haurrak eta gazteak kirolean eta kirolaren inguruan mota guztietako indarkeriatik (sexu-indarkeria barne) babestuta daudela ziurtatzeko.

Hona hemen neurriak: politika, erantzuteko prozedurak, prestakuntza, komunikazioa, berdintasun-auziak, hurrekin eta gazteekin komunikatzea eta horiei entzutea, prebentzioa, kontratazio eta hautespen segurua, ekitaldi-plan seguruak, kontrola eta ebaluazioa. Mundu osoko 50 kirol-erakunde baino gehiagorekin aztertu dira eta erakunde ugari onartzen ari dira. 2016an erakundeentzako dokumentu orientagarri bat egin zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko legeko markoa

- ▶ 14/1998 legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- ▶ 4/2005 legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- ▶ 16/2006 dekretua, uztailaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena.
- ▶ 125/2008 dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa.
- ▶ 163/2010 dekretua, ekainaren 22koa, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa.
- ▶ 203/2010 dekretua, uztailaren 20koa, goi mailako kirolari buruzkoa.
- ▶ EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana.

— EBren 2011/93/EB Zuzentaraua, haurren sexu-abusu eta sexu-ustiapenaren aurka eta haurren pornografiaren aurka borrokatzeari buruzkoa

Zuzentarau honek, *besteak beste*, haurrak tartean diren jarduera boluntario antolatu edo jarduera profesioletarako norbait kontratatzean haren zigor-aurrekariak egiaztatuko direla bermatzeko xedapenak jasotzen ditu. Ikusi zuzentaraua hemen:

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:32011L0093>

— Funtsezko erreferentziak

UNCRC 1989

<http://www.ohchr.org/EN/ProfessionalInterest/Pages/CRC.aspx>

Haurren Eskubideei buruzko Batzordea

<http://www.ohchr.org/EN/HRBodies/CRC/Pages/CRCIntro.aspx>

Europako Kontseilua - 2007ko Lanzaroteko Hitzarmena

<http://www.coe.int/en/web/children/lanzarote-convention>

Kirolean Haurrak Babesteko 2014ko Nazioarteko Neurriak

<https://www.unicef.org.uk/sport-for-development/safeguarding-in-sport/>

Haurrak Kirolean Babesteko Jarraibideak

<https://the cpsu.org.uk/resource-library/2013/standards-for-safeguarding-and-protecting-children-in-sport/>

Nazioarteko Olinpiar Batzordearen adierazpen adostua: jazarpena eta abusua (istripuzkoa ez den indarkeria) kirolean

<http://bjism.bmj.com/content/bjsports/50/17/1019.full.pdf>

Safe Sport International-en printzipioak

<http://www.safesportinternational.com/principles/>

<https://www.unicef.org.uk/what-we-do/un-convention-child-rights/>

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/93/EB Zuzentaraua, haurren sexu-abusu eta sexu-ustiapenaren aurka eta haurren pornografiaren aurka borrokatzeari buruzkoa

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/HTML/?uri=CELEX:32011L0093&from=EN>

UNESCOren Charte Internationale de l'Education Physique et du Sport

http://www.unesco.org/education/educprog/eps/EPSfrancais/EVENEMENTS/charte_internationale_de_l.html

Kazango Ekintza Plana, Gorputz Hezkuntzaz eta Kirolaz arduratzen diren

Ministroen eta Goi Mailako Funtzionarioen Nazioarteko Seigarren

Konferentzian (MINEPS VI) bildu ziren ministroena, Kazan (2017ko uztailaren 13tik 15era), (UNESCO)

<http://unesdoc.unesco.org/images/0025/002527/252725e.pdf>

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



EUROPEAN UNION

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe





Nola identifikatu sexu-indarkeria

— Zergatik den zaila hitz egitea haurrentzat eta gazteentzat

Haurrak eta gazteak ia inoiz ez dira izaten gai heldu bati sexu-indarkeriari buruz hitz egiteko haiei gertatzen ari zaienean:

- ▶ Baliteke konfiantza- eta botere-toki bateko pertsona batek (gizon zein emakume batek) behartzea sexu-egintzak egitera, adibidez, entrenatzaile batek, mediku batek, taldekide zaharrago batek edo lider batek.
- ▶ Baliteke norbaiti esatearen ondorioekin mehatxatzea, hala nola haiei edo haien familiari kalte egitearekin.
- ▶ Baliteke heldu batek prestatzea, haiekin lotura emozionala garatuz, haien konfiantza bereganatzeko asmoz, eta baliteke haurrek edo gazteek harekin «benetako» harreman batean daudela ere pentsatzea. Sarritan, abusatzaileek haurren familia eta kirol-taldea prestatzen dituzte eta, horrela, are zailagoa gertatzen da haurrek uste izatea sinetsiko dietela.
- ▶ Kirolean, baliteke haurrak eta gazteak helduaren menpe egotea lehiaketetarako hautatuak izateko edo horietan parte hartzeko, baina, kirol batzuetan (hala nola gimnasia), atletak helduaren menpe daude segurtasunari eta ongizateari dagokionez. Hori arazo handia da delitugileak prestatzen dituenean.
- ▶ Kirolean arrakastatsu izateko ametsa duten gazte trebeentzat, are zailagoa izan daiteke lotura psikologiko hori apurtzea.
- ▶ Baliteke lotsa izatea, baita nolabait gertatu denaren erantzuleak direla sentiaraztea ere.
- ▶ Kirol-testuinguru batzuetan, baliteke sexu-indarkeria dakarten «sarbide-zeremonien» kultura egotea. Gainera, baliteke helduek hori onetsi edo ezikusiarrena egitea; horrela, haurarentzat zaila izaten da lagun zaharragoen aurka hitz egitea.

Gogoratu sexu-indarkeriak ukipenezko edo ukipenik gabeko abusua bil ditzakeela eta biktima aurrez aurre edo Interneten prestatzea har dezakeela barne. Adierazleen artean seinale fisikoak, emozionalak zein psikologikoak eta portaerari dagozkionak egon daitezke.

— Sexu-indarkeriaren zantzuak

Lehenik eta behin, garrantzitsua da identifikatzea zer den garapen-eta bakoitzeko sexu-portaera normala. Haurrenganako Ankerkeria Saihesteko Elkarte Nazionalak (NSPCCk) horri buruzko informazio erabilgarria dauka:

<https://www.nspcc.org.uk/preventing-abuse/keeping-children-safe/healthy-sexual-behaviour-children-young-people/>

Hona hemen sexu-indarkeriaren portaera-zantzu batzuk:

- ▶ Adin jakin bateko haur batengandik eskuarki espero izango zenukeena baino portaera sexualizatu askoz ere aurreratua goa.
- ▶ Bere adinaz oso bestelakoak diren heldu, haur edo gazteekiko sexu-interesa.
- ▶ Sexu-portaera bortitza edo oldarkorra.
- ▶ Aztura konpultsiboak.
- ▶ Heldu jakin baten beldur delako zantzuak.
- ▶ Haren portaera haren aurrerapenari eta erdiespenei eragiten ari zaiela dioten eskolako edo kirol-klubeko txostenak.
- ▶ Lo egiteko arazoak.
- ▶ Isila izatea.
- ▶ Arriskatzeko joera.

Adierazle fisikoak:

- ▶ Ohean pixa egitea.
- ▶ Sexu-transmisiozko gaixotasunak.
- ▶ Alkohol- edo droga-abusua.

Adierazle psikologikoak:

- ▶ Osasun mentaleko arazoak: antsietatea edo depresioa.
- ▶ Nork bere buruari kalte egitea, suizidioari buruzko pentsamenduak.
- ▶ Elikadura-nahasmenduak.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe



— Hona hemen prestaketaren eta portaera desegokiaren zantzu batzuk helduengan edo gazteengan:

- ▶ Haur edo gazte bati edo batzuei arreta berezia ematea.
- ▶ Opariak edo mesede bereziak ematea.
- ▶ Entrenamenduetara, partidetara edo kanpoko ekitaldi edo lehiaketetara joateko, haurrentzako edo gaztearentzako garraioa eskaintzea.
- ▶ Norberaren ahaideak ez diren haurren edo gazteen adiskide egitea gizarte-sareetan.
- ▶ Sexuari dagokionez egokia den portaeraren, hizkeraren edo umorearen mugak probatzea.

Haur eta gazteengan, arestian azaldutako zantzuez gain, baliteke nabaritzea haur bat azaldu ezin dituen opari garestiak jasotzen ari dela edo ohi ez bezala isilka-misilka dabilela ikusten ari den jendeari edo joaten den tokiei buruz.

— Abusurako prestatzea

Helduek edo gazteek abusurako presta ditzakete haurrak edo beste gazte batzuk. Zaila izan daiteke prestaketa-portaera bereiztea kirol-testuinguruko konfiantzako beste edozein gizabanakoren portaeratik. «Prestatzaileek» denbora luzea (hilabeteak edo urteak) eman dezakete haurren familiarekin eta ingurukoekin harreman bat sortzen, baita kirol-klubeko kideekin ere. Konfiantza-tokien bila ibil daitezke, eta klubeko edo taldeko kide baliotsu bihurtu. Prestaketa Interneten gerta daiteke eta ukipenik gabeko abusua har dezake barne. Horregatik, oso garrantzitsua da kirol-klubek eta -topalekuek heldu eta gazte guztientzako **jokabide- edo portaera-kodeak** edukitzea, bai Interneten bai Internetez kanpo. Kode horiek argi eta garbi adierazi behar dute zein portaera den onargarria eta zein den onartezina. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi webgune hau:

https://www.researchgate.net/publication/37327383_The_grooming_process_in_sport_Case_studies_of_sexual_harassment_and_abuse

— Funtsezko erreferentziak

Pro Safe Sport-en webgunea: www.coe.int/sport/PSS

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak idatzizko baliabideak eta bideoak ekoizti ditu helduei (entrenatzaileei eta kirol-federazioei) adin guztietako atletak babesteko neurriak ezartzen eta sexu-jazarpena eta -abusua identifikatzen eta horiei erantzuten laguntzeko asmoz:

<http://sha.olympic.org/home.html>
<https://hub.olympic.org/safeguarding/>

NSPCCko Haurrak Kirolean Babesteko Unitateak webgune bat dauka, non gurasoei eta helduei sexu-indarkeriari buruzko kezka ugari identifikatzen eta horiei erantzuten laguntzeko baliabide erabilgarri anitz dituen:

<https://thecpsu.org.uk/resource-library/2017/sexually-harmful-behaviour-by-young-people-in-sport/>
<https://thecpsu.org.uk/resource-library/2015/webinar-understanding-grooming-for-abuse/>
<https://www.nspcc.org.uk/preventing-abuse/child-abuse-and-neglect/child-sexual-exploitation/>

— Funtsezko mezuak

Sarritan, hurrek eta gazteek ez diete helduei ezer esaten, baina helduek haiengan eta haien abusatzaileen portaeran zantzuak ikustea behar dute. Funtsezkoa da kirol-erakundeek jokabide-kodeak ezartzea, heldu eta gazteentzako portaera onargarria eta portaera onartezina zer diren adierazten dutenak:

- ▶ EZ dago sexu-harremanetarako BAIMENIK haurrak edo gazteak tartean daudenean.
- ▶ Gizonek, emakumeek, nerabeek, mutilek eta hurrek egin diezaiekete sexu-abusua haur eta nerabeei.
- ▶ Hurrek eta gazteek muga argiak daukate haien gorputzei dagokienez, eta muga horiek errespetatu egin behar dira.
- ▶ Hurrek eta gazteek eskubideak daukate, eta eskubideok jarduera guztien erdigunean egon behar dute.
- ▶ Arrakasta atletarena da. Entrenatzaileak eta jarraigoa beren lana egiten ari dira eta haur edo gazteari laguntza ematen diote.
- ▶ Kirola haurrak eta gazteak garatzen diren ingurune ugarietako BAT da, baina ez da BAKARRA. Familiak, adiskideek eta eskola-inguruneak atletaren bizitzan jarraitu behar dute haren kirol-mailak aurrera egin ahala.
- ▶ Hurrek eta gazteek eragiten dien guztiari buruzko ametsak, iritziak, ideiak eta ahots argia daukate. Entzun egin behar zaie eta kontuan hartu behar dira haien garapenarekin zerikusia duen guztian.
- ▶ Hezur bat apurtzen baduzu, laguntza bilatzen duzu; min emozionala sentitzen baduzu ere laguntza bila dezakezu.

— Sexu-portaera kaltegarria gazteengan

Jende gehienak ez daki gazteek sexu-portaera kaltegarria adierazten dutenik. Zenbatesten da gutxi gorabehera sexu-abusuen heren bat beste haur eta gazte batzuek egiten dutela (iturria: Hackett, S., 2014, *Children and young people with harmful sexual behaviours*). Funtsezkoa da kirolean aritzen diren helduek zantzuak ezagutzea eta nola erantzun jakitea. Kirolean, sarbide-erritualei edo "hasiberrie" erritualei lotutako gertakariak jakinarazi dira, zeinetan sexu-abusuari edo sexu-portaera kaltegarriari bide eman zaion. Biktimei, lekukoei eta delitugile gazteen bizitzari eragiten diete. Bai jokabide-kodeen urraketatzat bai krimen potentzialtzat jo beharko liriteke.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



EUROPEAN UNION

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe



4

BIKTIMAK BABESTEIA



Sexu-indarkeriari buruzko kezka eta salaketei erantzutea

— Sexu-indarkeria kirolean eta kirolaren inguruan saihestea

Haurrentzako eta gazteentzako kirolean aritzen diren guztiek informazio eta hezkuntzarako sarbidea eduki behar dute, honetarako laguntza jasotzeko:

- ▶ Ingurune segurua, atsegina, konfiantzazkoa eta haurrak erdigunean duena sortze aldera urrats praktikoak egiteko
- ▶ Sexu-indarkeria jasaten ari daitezkeen haurrei eta gazteei buruzko kezkak identifikatzeko eta horiei erantzuteko.

— Nola erantzun sexu-indarkeria jasaten ari den haur edo gazte bati edo lagun baten portaerari buruzko kezkak dituzunean

Denek ezagutu behar dituzte beren erakundearen jarraibideak eta prozedurak eta jakin behar dute nori jakinarazi behar dizkieten beren kezkak, erakunde barruan zein erakundetik kanpo.

— Erakunde nazionalak honako hauek eduki behar dituzte:

- ▶ Haurren eta gazteen babesari buruzko idatzizko jarraibideak.
- ▶ Helduentzako eta gazteentzako jokabide- edo portaera-kodeak.
- ▶ Haurrei eta gazteei buruzko kezka orori erantzuteko moduari buruzko idatzizko prozedurak, baita sexu-indarkeria beraiek agerian jartzen duten kasuetarako ere.
- ▶ Salaketak eta diziiplina-prozedurak.
- ▶ Haurrak babesteko izendatutako pertsona bat; denek jakin behar dute nola jar daitezkeen harekin harremanetan.

Kirol-klubek, gutxienez, ziurtatu behar dute haur guztiek badakitela zein eskubide duten eta zein laguntza-lineatar jo dezaketen eta bermatu behar dute klubeko jendeak badakiela nori jakinarazi behar dizkion kezkak.

Herialde bakoitzaren gutxienerako itxaropenak oso desberdinak izan daitezke. Kirol-erakundeetan ez dago beti haurrei edo gazteei buruzko kezkei erantzuteko jarraibide eta prozedurarik; beraz, kiroleko liderrek eta entrenatzaileek zer dagoen jakin behar dute, adibidez, erakunde ofizialtako kontaktuak eta haur eta helduentzako laguntza-lineak.

— Informazioa partekatzea eta konfidentzialtasuna

- ▶ Gorde txostenak isilean eta jakinarazi bakarrik jakin behar dena eta jakin behar duenari.
- ▶ Erakunde ofizialek aholkatuko dute nori eman informazioa, tartean badaude.



Kirol arloan sexu abusu eta jazarpen eta sexugatiko jazapenaren aurkako arreta zerbitzua

Telefonoa: 688 671 000

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



Implemented
by the Council of Europe



— Nola erantzun abusua jasaten ari dela esaten dizun haur edo gazte bati: zer egin eta zer ez

Gogoratu haur gehientzat izugarri zaila dela norbaiti esatea sexu-indarkeria jasaten ari direla.

Oso garrantzitsua da:

- ▶ Lasai egotea eta zirrarak edo gaitzespenik ez erakustea.
- ▶ Haurrak edo gazteak dioenari adi entzutea.
- ▶ Haurra edo gaztea lasaitzea, esanez hitz egitean zuzen jardun dutela eta gertatu dena ez dela haren errua.
- ▶ Haurrari edo gazteari jakinaraztea sinesten diozula.
- ▶ Haurrari edo gazteari esan nahi duena askatasunez gogoratzen uztea.
- ▶ Ulertu ez duzun zerbait argitzeko soilik egitea galderak. Gogoratu balitekeela haurrari edo gazteari beste elkarrizketa bat egin behar izatea erakunde ofizialaren ikerketan edo ikerketa kriminalean.
- ▶ Ez egitea agian bete ezingo dituzun promesik, adibidez, haurrak edo gazteak dioena isilean gordeko duzulakorik, horren berri eman behar duzunean.
- ▶ Haurrari edo gazteari gero zer egingo duzun esatea.
- ▶ Eman beste laguntza-iturri batzuei buruzko informazioa, adibidez, haurrentzako laguntza-lerroei buruzkoa.
- ▶ Txostena haurrak babesteko erantzukizuna duen pertsona izendatuari ahalik eta lasterren helaraztea. Pertsona horri helarazterik ez badago, ziurtatu salaketak ikertzeari eta haurraren edo gaztearen segurtasuna bermatzeari ekin diezaioketen erakunde ofizialei ematen diezula informazioa. Egin jaramon haien kontseiluari, haurraren edo gaztearen gurasoekin nork hitz egin behar duen esaten dutenean.

— Salaketak eta diziplina-prozedurak

Oraindik oso zaila da auzipetze kriminal arrakastatsuak erdiestea, sistema sofistikatuenak erabili arren, biktima zaurgarriekin zaila delako "arrazoizko zalantza haraindi"ko atalera heltzea, batez ere kontuan hartuta sexu-indarkeria isilean gertatu ohi dela.

Beraz, erakunde nazionalak dira bertako langileen eta boluntarioen aurkako salaketak tratatzeko arduradunak.

Hortaz, jokabide-kodeen urraketak tratatzeko jarraibideak eta prozedurak garatu behar dituzte, hauetan guztietan bidezkoak direnak:

- ▶ Salaketa-prozeduretan.
- ▶ Diziplina-bistetan.
- ▶ Gatazketan.
- ▶ Apelazioetan.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



EUROPEAN UNION

COUNCIL OF EUROPE



CONSEIL DE L'EUROPE

Implemented
by the Council of Europe

— Jardun zure kezken arabera:

- ▶ Ezagutu zure erakundearen prozedura eta jakin nori jakinarazi behar dizkiozun kezka kirolaren barruan eta kirolek kanpo.
- ▶ Jaso egitateak eta iruzkinak (iritzirik ez), ahalik eta zehazkien.
- ▶ Ziurtatu txostena behar bezain argia dela, etorkizunean egon daitezkeen prozedura kriminaletan gogora dezazun.
- ▶ Jakin zure erakundetik kanpo norengana jo dezakezun behar izanez gero.

Erantzun: jarraitu zure prozedurei.

Idatzi: erabili zure jakinarazpen-inprimakia (halakorik badaukazu), idatzi egitateak eta iruzkinak (iritzirik ez), ahalik eta zehazkien.

Jakinarazi: helarazi zure kezka babesteko izendatutako pertsonari, estatuko zein tokiko mailan, zure kirolaren egituraren arabera. Halakorik ez badago edo larrialdia bada, helarazi zure kezka erakunde ofizialei.

— Haurrentzako, gazteentzako edo ukitutako beste batzuentzako laguntza

Kirol-erakundeek eta erakunde ofizialek biktimentzako, haien familientzako eta ukitutako besteentzako tokiko eta estatuko zerbitzuei buruzko informazioa eman behar dute.

— Efektu eta ondorioetarako prestatzea, birbiktimizazioa barne

Haur edo gaztearengan ardaztutako ikuspegiari eustea.

- ▶ Ziurtatu haurrak ez direla birbiktimizatzen beste pertsonen erantzunen eta erreakzioen eraginez.
- ▶ Emaiezu laguntza eta helarazi informazioa ukitutako besteek erakundearen edo erakunde ofizialen erabakiak uler ditzaten.



5

SEXU-INDARKERIA SAIHESTEA



Kirolean eta kirolaren inguruan haurren eta gazteen aurkako sexu-indarkeria saihestea

— Babes-neurririk ezartzen ez badira, zergatik izan ditzake kirolak indarkeria gertatzeko aukera gehiago?

- ▶ Baliteke muga arauturik ez egotea kirolean konfiantza-tokietan dauden lider gazteen edo helduen arteko Interneteko edo Internetez kanpoko harremani buruz. Horien gaineko jokabide-kodeak egon behar dute, denek mugak argi eduki ditzaten.
- ▶ Kirola ez dago testuinguru formalagoak, adibidez, eskolak, bezain arautua.
- ▶ Neurri handi batean boluntarioek kudeatzen dute, eta baliteke horiek babes-neurriak ezartzeko beharrezko informaziorik, prestakuntzarik edo laguntzarik ez edukitzea, sexu-indarkeriaren adierazleen berririk ez izatea eta kezkei eta salaketei erantzuteko moduz ziur ez egotea.
- ▶ Entrenamendu-praktikako ukipen fisikoak nahi ez den ukipenerako aukerak ekar ditzake, araututa ez badago.
- ▶ Kiroleko kulturak esan nahi du sexu-abusua dakarten «hastapen»-zeremonia direlakoak kirolaren zati gisa onartu direla eta ez direla krimen izan daitezkeelakoan zalantzan jartzen. Zeremonia horiek lekuko diren haurrak edo gazteak traumatiza ditzakete, baita lekuko helduak ere.

Arrisku-ebaluazio batek sexu-indarkeria edo sexuari dagokionez desegokia den portaera barne hartzen duenean eta horren ondorioz espezialista edo forentse baten ebaluazioa behar denean, aholkua eskatu behar zaie erakunde ofizialei.

— Prebentziozko neurri praktikoak ezartzea

Sexu-indarkeria saihesteko, funtsezkoa da haurren ardaztutako kalitate oneko ingurunea sortzea, zeinetan haurrek eta gazteek beren eskubideak uler baititzakete eta kezkatzen dituzten gaiak eztabaidatzeko lasaitasuna baitute.

Gurasoek beren seme-alaben kirolari buruzko galderak egin behar dituzte:

- ▶ Entrenatzaileen tituluei buruz.
- ▶ Langileen eta boluntarioen esperientziari buruz.
- ▶ Langileen eta boluntarioen aurrekarien egiaztapenari buruz.

‘Diru-zorroa edo poltsa inoiz ikusi ez dituzun ezezagunen talde batean utziko ez bazenu, ez al da zure semea edo alaba askoz ere baliotsuagoa?’

(Anne Tiivas, Westminster Media Forum, 2017ko urria)

— Prebentziozko neurriak

Aurreko fitxetan, kirolean sexu-indarkeria saihesteko eta kezkei erantzuteko egin behar diren urratsez mintzatu gara. Erakundeei dagokienez, ikusi 4. fitxa.

Ezari behar diren babes-neurrien eta horri ekiteko jardunbide egokien adibide ona dira Kirolean Haurrak Babesteko Nazioarteko Neurriak eta zuzendaritza-organoentzako dokumentu orientagarri erantsia. 50 erakundek baino gehiagok probatu dituzte, olinpiar batzorde nazionalatik garapenerako kirolaz arduratzen diren erakunde txikietaraino.

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpenera eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



Implemented
by the Council of Europe



Honako kasu hauetan, abusu-mota guztietarako arriskua areagotu egiten da haurren edo gaztearen errendimendua hobetu ahala:

- ▶ Haurrak eta gazteak etxetik eta ohiko babes-neurrietatik urrun bidaiatzen hasten direnean.
- ▶ Gazte trebeak eta elitekoak entrenatzaileen eta segizioen menpe daudenean arrakasta lortzeko eta hautatuak izateko.
- ▶ Eliteko kirolak "kosta ahala kosta irabazteko" xedea duenean bereizgarri. Haur eta gazte trebeak, pixkanaka, helduen errendimenduaren munduan sartzen dira. Bertan, "sarritan haurrak izaten dira adinaren arabera, baina helduak bizimoduari dagokionez. Horri nahaste-egoera esaten zaio" (iturria: Safeguarding Youth Sport —ICES 2015 www.safeguardingyouthsport.eu);
- ▶ Haur eta gazte batzuk abusu-arrisku handiagoan jartzen direnean kontzientziatuta ez gaudelako eta haiek babesteko ezer egiten ez dugulako. Adibidez, desgaitasuna duten eta kirolean parte hartzeko eta aurrera egiteko abusia egiten ari zaizkien helduen menpe daden gazteak. LGBT diren gazteek diskriminazioa jasan dezakete, haien sexu-orientazioa hutsegitez sexu-arriskutzat jo daiteke eta.

— Erakundeetako arriskuaren ebaluazioa

Kirol-erakundeek egon daitezkeen arriskuak identifikatu behar dituzte gobernamentu egokia lortzeko. Arriskuetatik babesteak prozesu horren zati bat izan behar du, baita osasunak eta segurtasunak ere. Kirolek arriskuen erregistroak egin eta eguneratu behar dituzte. Erregistrook arrisku-ebaluazioak barne hartu behar dituzte, eta egon daitezkeen arriskuak edo arriskubideak txikiagotzeko edo deuseztatzeko kontrolak azaldu. Kirol-ekitaldietarako, lehia-mailari dagozkion babes-planak ezarri behar dira.

<https://thecpsu.org.uk/resource-library/2015/safe-sports-events-management-tool/>

— Gizabanakoek dituzten arriskuen ebaluazioa

Kontratazio-prozesuaren barruan egin daiteke, babeserako egiaztapenek agerian jartzen dutenean gizabanako batek haurrekin lan egiteko duen egokitasunari buruzko kezka daudela. Era berean, babes-neurriak aplikatu bitartean edo aplikatu ostean nahiz haurrak babesteko ikerketa egitean sor daitezke kezka. Baliteke kirol-erakundeek arriskua edo egokitasuna ebaluatu behar izatea. Horretarako, ebaluazioa egituratu behar da eta erakundeei erabaki defendagarri eta informatuak hartzea ahalbidetzen dien jardunbide egokiak hartu behar dira aintzat. Hona hemen zenbait adibide:

<https://thecpsu.org.uk/resource-library/2015/rfi-interview-risk-assessment-checklist/>

<https://thecpsu.org.uk/resource-library/2013/safe-recruitment-and-selection-procedures/>

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



Implemented
by the Council of Europe



— Zortzi babes-neurriak

Hauetara dira Kirolean Haurrak Babesteko Nazioarteko Neurriak:

- ▶ Zure politika garatzea.
- ▶ Babesari buruzko kezkei erantzuteko prozedurak.
- ▶ Aholkularitza eta laguntza.
- ▶ Haur eta gazteentzako arriskuak txikiagotzea.
- ▶ Portaerarako jarraibideak.
- ▶ Kontratazioa, entrenamendua eta komunikazioa.
- ▶ Lagunekin lan egitea.
- ▶ Kontrola eta ebaluazioa.

Ohar orientagarriek laguntza eta aholku praktikoak ematen dituzte, urratsez urrats, baita pilotuan parte hartu zuten mundu osoko erakundeetatik ateratako adibideak ere. Behean ematen da ohar orientagarrien erreferentzia.

— Funtsezko erreferentziak

NOBen baliabide berriak: «Safe guarding athletes from harassment and abuse in sport: IOC Toolkit for IFs and NOCs:

<http://sha.olympic.org/home.html>

Hori abian jartzeari buruzko NOBen prentsa-oharra behean aurki dezakezu. Hona hemen tresna-multzorako zuzeneko esteka:

<https://hub.olympic.org/safeguarding/>

Deskargatu babesteko baliabideak:

<https://www.unicef.org.uk/?s=International+Safeguards+for+Children+in+Sport>

Deskargatu ohar orientagarriak:

<https://www.unicef.org.uk/?s=International+Safeguards+for+Children+in+Sport>

Herbehereetako Olinpiar Batzordeak eta Herbehereetako Kirol Konfederazioak (NOC*NSF) 1996tik jarraibideak eta praktikak garatu ditu Herbehereetako kirolean sexu-larderia deritzona saihesteko. Sexu-larderiarako jarraibideen tresna-multzoa:

<http://www.nocnsf.nl/stream/toolkit-seksuele-intimidatie>

Kirol-ingurune seguru eta begirunetsua lortzeko arau-esparrua:

<https://sportplezier.nl>

Ekintza Plan Nazionala: kirolean indarkeria sexualizatuaren aurka borrokatzeko Austriako metodoa:

http://www.100sport.at/de/menu_main/news/newsshow-bm-klug-initiiert-strategiegruppe

Txekian Kirolean Sexu Jazarpena Saihesteko Gida:

<http://www.olympic.cz/upload/files/g9vmztko05-prevence-sex-obtezoovani.pdf>

Play by the Rules Hego Australiako Kirol eta Jolaserako Sailak sortu zuen, 2001ean, eta kiroleko diskriminazioari, sexu-jazarpenari eta haurren babesari buruzko hezkuntza eta informazioa ematen duen webgune interaktiboa da:

<https://www.playbytherules.net.au>

Irlandako Kirol Kontseiluak eta Ipar Irlandarako Kirol Kontseiluak Kiroleko Haurrentzako Etika eta Jardunbide Egokiaren Kodea argitaratu zuten 2000. urtean:

http://www.irishsportsCouncil.ie/Participation/Code_of_Ethics/Code_of_Ethics_Manual/

6

HEZKUNTZA ETA KONTZIENTZIAZIOA



Nola kontzientziatu kiroleko sexu-indarkeriaz eta nola aurkeztu gaia eztabaidatzeko

“Hurrekin harremanetan dauden guztiak haiek babesteko eginkizun bat bete behar dute. Hori segurtasunez eta eraginkortasunez egiteko, ezinbestekoa da funtsezko trebetasunen berri izatea, horiek behar bezala ulertzea eta horiek garatzeko, praktikatzeko eta abian jartzeko aukera edukitzea. Haurrentzako kirol-jarduerak eskaintzen dituzten erakundeek langileentzako eta boluntarioentzako prestakuntza- eta garapen-aukerak eskaintzeko erantzukizuna dute”. UNICEFek erakunde guztiak erabil dezaketen kalitate oneko baliabide bat eskaintzen du:

<https://www.unicef.org.uk/wp.content/uploads/2014/10/International-Safeguards-for-Children-in-Sport-version-to-view-online.pdf>

Kirolean hurrekin eta gazteekin lan egiten duten guztiak hezkuntza- eta ikaskuntza-aukerak eman behar zaizkie, helburu hauekin:

- ▶ Sexu-indarkeriaren zantzuak ulertzeko.
- ▶ Nola erantzun jakiteko.
- ▶ Kezkak nola jakinarazi jakiteko.

Babesteko erantzukizun handiagoak dauzkaten pertsonak hezkuntza eta laguntza behar dituzte beren eginkizunek betetzeko.

— Sexu-indarkeriari buruzko prestakuntza ematen dutenentzako prestakuntza-gaitasunak

Sexu-indarkeriari buruzko prestakuntza ematen dutenek irakasle eskarmentudunak izan behar dute, gaia korapilotsua delako eta ikasle helduen beharrei heltzeko gaitasuna behar delako.

— Prestakuntza egokia aukeratzea

Herrialde askotan, orain badago ikasle ugari oinarrizko informazioa ematen dien lineako prestakuntzarako sarbidea. Oro har, prestakuntza horrek babeserako sarrera emango du, sexu-indarkeria barne.

Hauk dira hurrengo prestakuntza-mailak:

- ▶ Hastapeneko.
- ▶ Oinarrizkoa.
- ▶ Espezializatua.
- ▶ Etengabeko lanbide-prestakuntza.

Gazteekin zuzenean lan egiten duten langile eta boluntario guztiak aurrez aurreko prestakuntza jasotzeko aukera eman behar zaie. Oinarrizko prestakuntzak honako hau hartzen du barne:

- ▶ Nola identifikatu indarkeria-zantzuak.
- ▶ Nola erantzun kezkei.
- ▶ Nola jakinarazi kezkak.

Prestakuntza rol berezietara moldatu behar da, adibidez, entrenatzaile-rolera.

<https://thecpsu.org.uk/training-events/basic-safeguarding-training/>

<http://www.ukcoaching.org/site-tools/workshops/about-our-workshops/safeguarding-and-protecting-children>

Espezializatua

Kirol-erakunde edo -klub nazionalak babesteko eginkizunak dituzten pertsonak izendatzen dituztenean, prestakuntza espezializatua jaso behar dute.

Etengabeko lanbide-prestakuntza

Hurrekin zuzenean lan egiten duten entrenatzaileek eta beste pertsonak ezagutza eguneratzeko aukerak eduki behar dituzte. Horri etengabeko lanbide-prestakuntza dei dakiok. Gaien artean Interneteko abusua, eliteko atletekiko lana edo jazarpen homofoboa egon daitezke.

<https://thecpsu.org.uk/training-events/continual-professional-development/>

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded by the European Union and the Council of Europe



Implemented by the Council of Europe



— Kontzientziazeko funtsezko gogoetak

- ▶ Argitu gaiaren nondik-norakoak eta zergatik den arazo bat; eman behar diren frogak eta aipatu gaia gehiago hurbiltzeko kasu-azterketak.
- ▶ Argitu zein emaitza edo aldaketa ikusi nahi duzun eta hori errealista eta egingarria dela.
- ▶ Identifikatu laguntzaile eta babesle potentzialak.
- ▶ Argitu norentzat ari zaren: adibidez, haurrentzat, gazteentzat, gurasoentzat, entrenatzaileentzat, jendearentzat oro har edo gobernuarentzat.
- ▶ Prestatu zure entzuleentzako mezu argiak eta errazak.
- ▶ Erabaki zein material osagarri sortu nahi duzun eta norentzat; adostu elementu bakoitzerako aurrekontua eta kostuak. Ikertu zure gaiari buruz lehenago egin diren kanpainak eta aurkitu zer atara den ondo horietan.
- ▶ Erabaki zein komunikazio-metodo erabili nahi duzun: webgunea, material inprimatuak edo gizarte-sareak.
- ▶ Egin kontsulta interes-talde nagusiei.
- ▶ Adostu nola kontrolatu eta ebaluatuko den arrakasta hasieran.
- ▶ Adostu egutegia eta noiz bukatuko den kanpaina.
- ▶ Erakunde batek kontzientziazio-kanpaina bat egin nahi badu, laguntza emateko gai izan behar du. Kanpaina baten bidez gazte bat kasu bat agerian jartzera animatzen baduzu baina ezin badiozu behar duen laguntza eman, baliteke lagundu beharrean kalte egitea.

— “Start to talk”: kirolean haurren aurkako sexu-abusuari amaiera emateko deia

Zenbatesten da Europan gutxi gorabehera bost haurretatik bat dela sexu-indarkeria motaren baten biktima. Tamalez, sexu-abusua gutxitan jakinarazten da eta sarritan ezkutatu egiten da.

“Start to talk” klubei, federazioei, kiroleko liderrei, entrenatzaileei, atletei, haurrei eta haien familiei egindako deia da, kirolean haurren aurkako sexu-abusua saihesten lagundu dezaten eta horri erantzun diezaioten. Deiarekin bat egiten dutenek konpromisoa hartzen dute haurrak eta kirolak abusutik babestea xede duten urrats zehatzak egiteko. “Start to talk” Europako Kontseiluak haurren eskubideen alde eta haiek indarkeriatik babesteko egiten duen lanaren zati bat da. Haurrak sexu-ustiapenetik eta sexu-abusutik babesteko Europako Kontseiluaren hitzarmena ezartzen laguntzen du.

Website: www.starttotalk.org

Pro Safe Sport+ Eman amaiera haurren aurkako sexu-jazarpen eta- abusuari kirolean (Erasmus+)

Funded
by the European Union
and the Council of Europe



Implemented
by the Council of Europe

— Gai korapilatsuen inguruko berariazko gogoetak, sexu-indarkeriari buruzko kanpainak barne

- ▶ Ziurtatu adituei parte harrarazten diezula zure kanpaina eta baliabideak diseinatzean eta garatzean.
- ▶ Haur eta gazteentzako baliabideak garatzen direnean, honelakoak izan behar dute: adinerako eta garapenerako egokiak; kulturari dagokionez sentikorrak; ingurune seguru eta lagungarri batean irisgarriak. Haur txikiei dagokienez, gurasoak edo konfiantzazko beste heldu batzuk, hala nola irakasleak edo trebatutako langileak zein boluntarioak, barne hartu behar dira. Kanpainak jasotzaileekin probatu behar dira abiarazi baino lehen.
- ▶ Hizpide den gaiak eragin ahal dien haurrei, gazteei eta helduei informazio- eta laguntza-iturriak ezagutarazi behar zaizkie, adibidez, laguntza-lerro konfidentzialak eta erakunde espezializatuak.
- ▶ Hezkuntza- eta prestakuntza-programak garatzen direnean, beharrezko prestakuntza edo gaikuntza dauzkaten pertsonak eman behar dituzte.

— Pro Safe Sport + lineako baliabide-zentroa

Pro Safe Sport + lineako baliabide-zentroa Europan prebentzio- eta babes-jarraitzaileak eta -neurriak garatzeko zerbitzu integralen gunea da. Agintari publikoari, kirol-erakundeei eta beste interes-talde batzuei kirolean sexu-abusua deuseztatzen laguntzeko aholku zehatzak ematen ditu eta badauden baliabideak eta kontzientziazeko tresnak sustatzen ditu. Praktika eta ekimen anitz biltzen ditu, sei ekintza-eremu estrategikotakoak:

- ▶ Haurrak babesteko estrategiak garatzea eta ezartzea.
- ▶ Programa hezigarriak.
- ▶ Kontzientziazeko ekimenak.
- ▶ Jokabide-kodeak eta etika-kodeak.
- ▶ Arriskua txikiagotzea.
- ▶ Laguntza-sistemak eta kasuen kudeaketa.

Website: www.coe.int/sport/PSS/

